



ISURKETA ADIERAZPENA BETETZEKO ARGIBIDEAK

INSTRUCCIONES PARA CUMPLIMENTAR LA DECLARACIÓN DE VERTIDO

7.1 INPRIMAKIA

FORMULARIO 7.1

Inprimaki hau bete beharko da baldin eta eskaera Tokiko Erakundeek aurkezten badute. Hondakin-uren fluxuetan substantzia arriskutsuen presentzia esanguratsua den kasuetan soilik bete beharko da. Isurian substantzia bat dagoela eta adierazgarria dela esateko, atalasea honako hau da: oro har erabiltzen diren teknika analitiko aurreratuenen kuantifikazio-muga baino handiagoa izatea substantzia horren kontzentrazioa. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 246.3.a) b) artikulua, eta Lehorretik itsasora egiten diren isurketei buruzko abenduaren 10eko 459/2013 Dekretua.

Este formulario será de aplicación en el caso de solicitudes presentadas por Entidades Locales. Solamente se rellenará en los supuestos en que haya flujos de agua residual en los que la presencia de sustancias peligrosas sea significativa. El umbral para considerar que una sustancia está presente en el vertido de manera significativa es que su concentración sea mayor que el límite de cuantificación de las técnicas analíticas más avanzadas de uso general. Art. 246.3. a) b) RDPH y Decreto 459/2013, de 10 diciembre, sobre los vertidos efectuados desde tierra al mar.

SUBSTANTZIA ARRISKUTSUAK IZANIK KOLEKTOREETARA EGINDAKO INDUSTRIA-ISURKETEN INBENTARIOA

INVENTARIO DE VERTIDOS INDUSTRIALES CON SUSTANCIAS PELIGROSAS A COLECTORES

- (1) Kolektoreetara egindako zeharkako isurketa bakoitzaren jatorrizko udalerrria, alkate-auzoa, barrutia... zein den adierazi behar da, 1.1 formularioaren A) atalean esleitutako ordena-zenbakiaren bitartez.
- (2) Kolektoreetara egindako substantzia arriskutsuen zeharkako isurketen zerrenda; halaber, enpresaren jarduera nagusiak Ekonomia Jardueren Kode Nasionaleko (CNAE) zer kode duen adierazi behar da, eta jardueraren deskribapena egin edo titulu adierazi. Horretarako, isurketak jarduera multzoaren arabera sailkatzen dituen taula kontsultatu behar da; taula hori apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren IV. eranskinean dago, eta Errege Dekretu horren bidez Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen da, Urei buruzko Legearen (uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) testu bateginekoko I., IV., V., VI., VII. eta VIII. aurretiazko tituluak garatzen dituenak.
Era berean, isurketaren titularra ere identifikatu behar da.
- (3) Kolektoreetara egindako substantzia arriskutsuen isurketa horien emaria adierazi behar da (m³/egun eta m³/urte). Baimendutako emaririk egonez gero, horixe adierazi behar da.
- (4) 3.5 inprimakian agertzen diren eta isurian dauden substantziak, betiere oro har erabiltzen diren teknika analitiko aurreratuenen kuantifikazio-muga baino handiagoa bada haien kontzentrazioa.

- (1) Se deberá indicar el municipio, pedanía, distrito, etc. del que proviene cada uno de los vertidos indirectos a colectores, mediante el número de orden asignado al mismo en el apartado A) del Formulario 1.1.
- (2) Relación de los vertidos indirectos de sustancias peligrosas a colectores, indicando el Código Nacional de Actividades Económicas (CNAE) de la actividad principal de la empresa así como su descripción o título del CNAE. A tal efecto se debe consultar el cuadro de clasificación de los vertidos por grupos de actividad del Anexo IV del Real Decreto 849/1986, de 11 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Dominio Público Hidráulico que desarrolla los títulos preliminar, I, IV, V, VI, VII y VIII del texto refundido de la Ley de Aguas, aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio.
Se identificará asimismo el titular del vertido.
- (3) Se expresará el caudal correspondiente a estos vertidos de sustancias peligrosas a colectores en m³/día y m³/año. En el caso de existir un caudal autorizado se deberá indicar éste.
- (4) Sustancias que figuran en el Formulario 3.5 contenidas en el vertido y cuya concentración sea mayor que el límite de cuantificación de las técnicas analíticas más avanzadas de uso general.